


Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco



Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

Administrazio eta Aholkularitza Juridikoko Aurrez Aurreko Zerbitzua Berraktibatze Protokoloa



2020ko ekainaren 11ean

ADMINISTRAZIO ZERBITZU OROKORRAK

- Aurrez aurreko arreta eta zerbitzua berraktibatze data: **2020ko ekainaren 15a, astelehena**
- Arretaren maiztasuna eta ordutegia: **astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:30era.**
- Administrazio langileak: Txandaka. Pertsona bat asteko.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

- Aurrez aurreko arreta eta zerbitzua berraktibatze data: **2020ko ekainaren 19a, ostirala**
- Arretaren maiztasuna eta ordutegia: astean egun batean. **Ostirala, 9:30etatik 14:00era.**

“ADMINISTRAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKOKO AURREZ AURREKO ZERBITZUA BERRAKTIBATZEKO PROTOKOLOA”

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Ikerketek funtsezko hiru oinarri nabarmendu dituzte, COVID-19k kutsatzeko arriskuaren aurrean babesteko eta prebenitzeko elementu eraginkorrak eta efizienteak direnak:

1. *Maskaren erabilera orokorra eta iraunkorra*
1. *Eskuen higieua eta erabilera publikoko instalazioen eta elementuen garbiketa sakona*
1. *Pertsonen arteko 1,5 eta 2 metroko distantzia soziala*

Horren ondorioz, hiru baldintza horiek zorrotz zaintzea nahikoa da laneko segurtasunaren berme handienarekin arreta ez-asistentzialeko zerbitzuak eman ahal izateko. **Administrazio eta Aholkularitza Juridikoko Aurrez Aurreko Zerbitzua Berraktibatze Protokoloa** honako irizpide hauetan oinarrituko da:

1.- Maskaren erabilera orokorra eta iraunkorra

*Instalazioetara sartzen den **erabiltzaileak** nahitaez erabili beharko du **maskara kirurgikoa edo higienikoa**. Jarraibide hori egoitzako atean ikusteko moduko seinaleen bidez jakinaraziko da.

- Erabiltzaileak ez badu maskararik, bat emango zaio.
- Erabiltzeari uko egitea nahikoa arrazoi izango da arreta eta zerbitzua baztertzeko.
- **Administrariak eta aholkulari juridikoak** nahitaez erabili beharko dute **maskara kirurgikoa** pertsonen arreta ematen dieten bitartean.



**MASKARILLA
ERABILI MESEDEZ
(Begiradarekin
Irribarreak onartzen
ditugu)
USA MASCARILLA,
POR FAVOR
(Aceptamos sonrisas
con la mirada)**

2.- Eskuen higieena eta erabilera publikoko instalazioen eta elementuen garbiketa sakona

2.a. Eskuen higieena

- *Aspalditik dakigu **eskuen higieen egokia dela** gaixotasun infekzio-kutsakorrek ez kutsatzeko neurririk eraginkorrena eta efizienteena.
- *Nahitaez erabili behar da egoitzarako sarbidean jarri den **soluzio hidroalkoholikoaren banagailua**.
- ***Ez da onartuko kaletik eskularruekin sartzea**. Hala hautematen bada, administrazioko langileek eskularruak kentzeko, eta, ondoren, soluzio hidroalkoholikoa erabiltzeko eskatuko dute, kontsulta egin ahal izateko.
- * Langileentzat, higieen-, desinfekzio- eta garbiketa-protokoloak prestatu dira, transmisio-bektore gisa adieraz edo identifika daitezkeen erabilera partekatuko elementuetarako (inprimatutako dokumentazioa, paketeak, boligrafoak, gutun-azalak).

GURE SEGURTASUNA ZURE ESKUETAN DAGO

NUESTRA SEGURIDAD ESTÁ EN TUS MANOS



2.b. Erabilera publikoko instalazioak eta elementuak sakonki garbitzea.

*Ikerlanek erakusten dute SARS-Cov-2, COVID-19 pandemia eragin duen birusa, hainbat ordutan eta egunetan egon daitekeela aktibo eta hainbat gainazal (metala, papera, kartoia, plastikoak ...) kutsa ditzakeela. Ondorioz, gure instalazioen higie- eta desinfekzio-neurriak muturrera eraman behar izan ditugu, bai eta publikoak erabiltzean kutsatu ahal izan diren elementuenak ere (ateetako heldulekuak, etengailuak, mahaiak, txorrotak ...). Langileekin desinfekzio-estrategia espezifikoak adostu dira, bat datozenak egoerarekin eta arriskuarekin.

3.- Pertsonen arteko 1,5 -2 metroko distantzia soziala


*Irizpide hori bete ahal izateko. Hesi-elementuak (metakrilatozko manparak) jarri dira, arreta administratiboa hurbilagoa eta seguruagoa izan dadin. (egoitzaren eta manparen argazkia).



Ahal den neurrian, aurretiko hitzordua beharko da arreta jasotzeko; hala, beharrezkoak ez diren jendepilaketak saihestuko ditugu. **Aurretiko hitzordua ezinbestekoa izango da Aholkularitza Juridikoarekin kontsulta egin nahi izanez gero.**

*Administrazio-arloan gehienez era bi pertsona egon ahalko dira: Bat “kontsulta aktiboan” eta bestea itxarote-gelan, eta beti eutsi beharko zaio pertsonen arteko 1,5-2 metroko distantziari.

*Aholkularitza Juridikoko bulegoan ekidin egingo da mahaia partekatzea. Bi espazioak erabiltzeak -mahaia nagusia eta osagarria- zentzuzko distantziari eusteko aukera ematen du, bestelako hesi-elementu batzuk jarri behar izan gabe.



Informazio osagarria

1. Hainbat infografia diseinatu dira, eta babes-neurriei buruzko informazio-seinale gisa erabiliko dira.
2. Informazio zehatzagoa behar izanez gero, kontsultatu “**pPlan COfpVID-19. Atención asistencial en Centros de Fisioterapia. Propuestas de medidas adaptadas**” dokumentua. EFEOk diseinatu duen oinarritzko dokumentua da, eta Fisioterapia zerbitzuen erreferentziazkotzat eta Jardunbide Egokien Gidatzat hartu dute.

https://www.cofpv.org/PLAN_COFPVID.pdf
3. Ahal den neurrian, **mugatu egingo ditugu aurrez aurreko bilerak**. Beharrezkoa izanez gero, bilerak bideokonferentzia bidez egin daitezke.
4. Berriz erabili ahal izango da **Liburutegia**, oinarritzko prebentzio-neurriak hartu baitira.
 - Gomendatzen da liburutegia modu arduratsuan erabiltzea: ez ukitu kontsultatu edo eramango ez diren liburuak eta materiala.
 - Liburuak itzultzea: Oinarritzko protokoloa ezarri da liburuak jaso ostean desinfektatzeko (prebentziozko koarentena), eta ez da beste mailegurik egingo hedatutako estandarrekin bat datorren epean.



Neurri horiek modu arduratsuan hartzeari esker, Elkargoaren Egoitza

leku atsegina eta segurua izango da,

...eta gure arreta zuk merezi duzun kalitatezko zerbitzua

Mila esker gu zaintzeagatik.